



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
José María Michelena Erasun.

2017ko uztailearen 4an, 8:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. 2016KO KONTUAK.

Udalak aldeko txostena eman zuela ikusirik eta espedientea jendaurrean egon den epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu kontuan hartuz, 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluaarekin bat etorritik, 2016ko kontuak onesten dira aho batez.

3. MOZIOAK.

Mozio hauek onesten dira:

1. Adierazpen hau, ekainaren 28ko ospakizunaren arira: *“Zubietako Udalak, osoko bilkuran, erabakitzen du aho batez Zubieta HOMOFobia, TRANSFOBIA, LESBOFOBIA, BIFOBIA eta INTERFOBIARIK gabeko udalherri deklaratzeari.*

Udalherri honetako herriak eta demokraziaren arabera hautatutako bere ordezkariak kanporatu nahi dugu Zubietatik pertsonen bizitzaren, osotasun fisikoaren eta duintasunaren gutxiespen oro, edozein dela ere pertsonen sexu aukera eta genero orientazioa. Uste dugu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren osagaia eta ardatza dela hori, eta elkarbizitza baketsua eta orekatua lortzeko bidea.

Sexu aukeragatik edo genero identitateagatik inor erasotzen edo gutxiesten dutenek jakin dezatela herri honek ez dituela onartzen. Eta beren izaera sexualagatik edo genero identitateagatik eraso eta gutxiespena jasan dutenek, jakin dezatela badutela Udal honen eta bere erakundearen elkartzatua.”

2. Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea dela eta, Zubietako Udaleko osoko bilkurak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

1. Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onartu eta ezarri zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoaren edukia errefusatzea.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)
31746

2. Espainiako Gobernuaren premiazko aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legea ahal denik eta azkarren indargabetzeko hartu beharreko neurriak urgentziaz har ditzan.

3. Herritarrei eduki honen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

4. Akordio honen berri ematea Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari.

3. Udalbatzak, aho batez, atxikimendua adierazten dio Poligonoaren aurkako Asanbladari eta XXX *Bardeetako* Poligonoaren aurkako ibilaldiari.

4. ESKABIDEAK.

1. Aho batez onetsi dira bestetan salmenta postuak jartzeko baldintzak:

- Baimena eskatu eta eskuratu behar da aurretik.
- Postuaren luzaera 6 metrokoa izango da gehienez.
- Udala ordezkariak erabakiko dute postu bakoitzaren kokapena.
- Debekatuta dago petardoak saltzea.
- 10 euro ordaindu behar dira eguneko. Baimena eskuratzean ordaindu beharko da diru-kopuru osoa.

2. Ondoren, idazkariak irakurri du Doneztebeko Udala bidalitako idatzia 0-3 bitarteko zikloaren finantzaketari buruz. Gonbidapen hau luzatzen dio Udalari: Askin Haur Eskolako zerbitzua erabili nahi duten herriko familiei hileko 100 euroko laguntza ematea. Eztabaidatu ostean, aho batez erabakitzen da gonbidapena ukatzea arrazoi hauengatik:

- Lana duten familiak saritzen ditu sistema horrek.
- Udala nahiago du haurrak herrian gelditzea, kanpora eramatea baino.
- Diru-laguntza hura onetsiz gero antzeko beste kasuetan ere berdin jokatu beharko litzateke: adibidez, Doneztebeko Musika Eskolara joaten diren ikasleak.

3. Herriko oihan aprobetxamendua markatu zenean akats bat izan zen *Gorospillaga* parajearen eta, ondorioz, P.J.H.I.renak ziren 6 arbol bota egin ziren. Nafarroako Gobernuak 260,58 euroko balioa eman die arbol haiei. Aho batez erabakitzen da H. jaunari ordaintzea 260,58 euro kalte-ordain gisa.

4. Arantzako Udala bidali duen eskaera hau irakurri du idazkariak: Arantza eta Zubietako mugaren ingurua otez beteta dagoela ikusirik, "USUA" Arantzako Ehiztarien Elkarteak sasiz garbitu nahi du, Zubietako dermioan dagoen zati bat barne (1 poligonoko 227 lursailaren parte bat); garbiketa egiteko baimena eskatzen dio Udalari eta, halaber, laguntza ekonomikoa. Aho batez erabakitzen da lanak egiteko baimena ematea, baina diruz lagundu gabe.

5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/26 zenbakia, 2017ko apirilaren 11koa, zeinean erabaki baitzen P.S.i lizentzia ematea 2,25 metro karratuko oilategia eraikitzeko 2 poligonoko 292 partzelan.
- 2017/27 zenbakia, 2017ko apirilaren 11koa, zeinean erabaki baitzen J.E.ri lizentzia ematea pelleteko estufa jartzeko *Sagardia* etxean, tximiniaren tutua fatxadan jarrita teiltaturaino.
- 2017/28 zenbakia, 2017ko apirilaren 11koa, zeinean erabaki baitzen L.J.ri lizentzia ematea *Iziarreko* 2 ardi bordako teiltatuak konpontzeko (2 poligonoko 120 partzela).
- 2017/29 zenbakia, 2017ko apirilaren 12koa, zeinean erabaki baitzen, Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren arira, elkartasuna adieraztea Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta gizarte zibilak luzatu duten deia: prozesu haren izapideak Iruñan egin beharko lirатеke.
- 2017/30 zenbakia, 2017ko apirilaren 12koa, zeinean erabaki baitzen agindua ematea I.B.ri *Makutsokobordan* egiten ari zen obrak bertan behera uzteko.
- 2017/31 zenbakia, 2017ko apirilaren 24koa, zeinean erabaki baitzen Talleres Jaso Industrial SLri baimena ematea zentraleko bidetik ibiltzeko 16 tonako kamioiarekin.
- 2017/32 zenbakia, 2017ko apirilaren 25koa, zeinean erabaki baitzen E.E.ri baimena ematea *Pasaitza* etxeko lur eremua ixteko pikete eta alanbrearekin paretaren gainetik.
- 2017/33 zenbakia, 2017ko apirilaren 28koa, zeinean erabaki baitzen M.S.i lizentzia ematea ur-depositua jartzeko 4 poligonoko 1026 partzelan, *Axerburu* etxea hornitzeko.
- 2017/34 zenbakia, 2017ko maiatzaren 2koa, zeinean erabaki baitzen J.L.S.i lizentzia ematea *Isabeleko bordako* aska estaltzeko.
- 2017/35 zenbakia, 2017ko maiatzaren 4koa, zeinean erabaki baitzen R.E.ri lizentzia ematea 2 poligonoko 148 partzelako pikete eta alanbreko itxitura berritzeko.
- 2017/36 zenbakia, 2017ko maiatzaren 5koa, zeinean erabaki baitzen A.E.ri lizentzia ematea *Petrixeneko* 2 borden arteko estalgunearen egurrezko pilarea aldatzeko (4 poligonoko 327 partzela).
- 2017/37 zenbakia, 2017ko maiatzaren 5koa, zeinean erabaki baitzen J.M.M. zinegotziaren esku uztea ezkontza zibila egiteko eskumena.
- 2017/38 zenbakia, 2017ko maiatzaren 10koa, zeinean erabaki baitzen M.S.i itzultzea fidantza; *Arrataburu* parajea oihan aprobetxamendua ateratzeko ordaindu zuen hura.
- 2017/39 zenbakia, 2017ko maiatzaren 16koa, zeinean erabaki baitzen I.B.ren aurkako espediente zigortzaileari hasiera ematea, obrak egiteagatik beharrezkoa den lizentziarik gabe.
- 2017/40 zenbakia, 2017ko maiatzaren 19koa, zeinean erabaki baitzen Talleres Jaso Industrial SLri itzultzea fidantza; zentraleko bidetik ibiltzeko ordaindu zuen hura.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2017/41 zenbakia, 2017ko maiatzaren 19koa, zeinean erabaki baitzen N.M.ri lizentzia ematea *Dendarinea* etxeko sukaldeko ekonomikaren tximinia jartzeko kanpo aldetik teilaturaino eta fatxadak pintatzeko.

- 2017/42 zenbakia, 2017ko maiatzaren 22koa, zeinean erabaki baitzen M.A.E.ri lizentzia ematea ur hornidura eramateko Iturengo eremuan dagoen *Bizarroneko bordara* (3 poligonoko 123 partzela).

- 2017/43 zenbakia, 2017ko maiatzaren 22koa, zeinean erabaki baitzen L.B.ri lizentzia ematea zenbait obra egiteko *Gure Ametsa* etxean: sukaldea, komuna eta garajea moldatu; berokuntza jarri; leihoak eta leiho-oholak aldatu.

- 2017/44 zenbakia, 2017ko maiatzaren 22koa, zeinean erabaki baitzen M.P.T.ri lizentzia ematea zenbait obra egiteko *Arozarena* etxean: teilatua erreteilatu (isolamendua eta teilatu-hodien aldaketa barne); fatxadak pintatu; komunean dutxa jarri.

- 2017/45 zenbakia, 2017ko maiatzaren 22koa, zeinean erabaki baitzen R.C. eta A.M.ri lizentzia ematea 4 poligonoko 137 lursailean eraikitako etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko.

- 2017/46 zenbakia, 2017ko maiatzaren 26koa, zeinean erabaki baitzen J.C.ri lizentzia ematea *Elizetxea* etxeko teilatua erreteilatuzeko.

- 2017/47 zenbakia, 2017ko maiatzaren 29koa, zeinean erabaki baitzen bukatutzat ematea P.S.en aurka hasitako espediente zigortzailea.

- 2017/48 zenbakia, 2017ko maiatzaren 29koa, zeinean erabaki baitzen bukatutzat ematea I.B.en aurka hasitako espediente zigortzailea.

- 2017/49 zenbakia, 2017ko maiatzaren 31koa, zeinean erabaki baitzen Maderas Santesteban SLri lizentzia ematea eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko zerrategian (*Arrazo* parajea).

- 2017/50 zenbakia, 2017ko ekainaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea F.J.M.ri *Larrañekobordako* garajearen ondoan harrizko pareta eraikiteko.

- 2017/51 zenbakia, 2017ko ekainaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen F.J.ri itzultzea fidantza; *Elutsa* parajearen oihan aprobetxamendua ateratzeko ordaindu zuen hura.

- 2017/52 zenbakia, 2017ko ekainaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen J.L.ri lizentzia ematea *Fermiñenbordako* terrazari atxikia dagoen lehorpeari teila aldatzeko.

- 2017/53 zenbakia, 2017ko ekainaren 13koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea J.A.i zumba ikastaroa emateko eskolan.

- 2017/54 zenbakia, 2017ko ekainaren 13koa, zeinean erabaki baitzen J.M.B.ri lizentzia ematea *Tomasenea* etxeko teilatua eraberritzeko.

6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Udalbatzak, behar bezala baimendurik, aho batez erabakitzen du salgai jartzea, gutun-azal itxiaren bidezko enkante irekian, ondoko oihan aprobetxamendua: lote bakarra, *Txomatxiki*; 667 *pinus nigra*, 210,23 metro kubiko zur eta 90,10 metro kubiko enbor txiki/egur egiten eta 4.925,38 euro balio dutenak, BEZa kanpo. Enkantea arautzeko baldintzen orria onetsi da.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

2. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilariaren 35/2017 Foru Agindua, Zubietako Plan Orokorra behin betiko onetsi zuena; Toki Administrazioako zuzendari nagusiaren 4/17 Ebazpena, hautetsien konpentsazioa onesten duena 2017ko ekitaldirako; Nafar-Lansareko zuzendari kudeatzailearen 1320/2017, 1321/2017 eta 1337/2017 Ebazpenak, langileak kontratatzeko diru-laguntzak onesten dituztenak; Vianako Printzea Erakundea-Kultura zuzendari nagusiaren 142E/2017 Ebazpena, artxibatze sistema propioa bermatzeko diru-laguntza onesten duena; Natur Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariaren 518/2017 Ebazpena, sutarako egur loteak emateko baldintzak onesten dituenak; Nafarroako Gobernura bidali den baso aprobetxamenduko baimen eskaera — P.J.H.rena—; Nafarroako Gobernuak eman duen birlandaketa baimena —J.L.ri—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak — P.J.H., J.L., G.F., S.O., M.E.I. eta S.I.ri—; Nafarroako Gobernuak S.I.ri onetsitako luzapena baso aprobetxamendua ateratzeko; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2017ko ekainaren 5ean emandako Ebazpena, *Albarrengo errekatik* ura aprobetxatzeko baimena eman ziona J.J.H.i; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —P.M. eta J.M.M.ren altak—.

3. G.F.M.k baso aprobetxamenduko eskaera aurkeztu zuen hiri-lurrean dagoen 4 poligonoko 941 partzelan. Aho batez erabakitzen da baimena ematea, kondizio hau betetzeko baldintzapean: Kantauriko Ur-Konfederazioak eman beharreko baimena lortu.

4. Idazkariak irakurri du Goizuetako Udalean, 2017ko martxoaren 3an, Artikutzari buruz egindako bileraren akta. Udalbazak aho batez erabaki du Donostiako Udalari eskatzea itxiturako alanbreak erretiratzea lehenbailehen, aziendentzat arriskutsuak direlako.

5. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek azaldu ditu:

- Udan ingelesa ikasteko aukera. 2 talde osatu dira.
- NILSA-ko tailerrak egingo dira uztailean.
- Hondakinen Batzordea: Malerrekan garbigunea egiteko proiektua dago; Sunbillako alkatea da Batzordeko presidente berria.
- Cederna-Garalur: turismoko teknikari berria; asanblada.
- Jubiloteka antolatu behar da Malerrekako 3 herritan; Zubieta da horietako bat.

Gai Zerrendatik kanpo, aurretik presazkoa dela aitortuz, erabaki hauek hartu dira:

1. Aho batez erabakitzen da Herritarren lana edo auzolana arautzen duen Ordenantzaren 4 e) artikuluko salbuespena ematea bake epaile titularrari (*“Lan pertsonala edo auzolana egitetik salbuetsita egonen dira honako pertsona hauek: e)*



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)
31746

Udalbatzaren ustez onura publiko edo interes sozialeko jarduerak egiten dituzten pertsonak.”). Ondorioz, auzolana egitetik salbuetsita dago bake epaile titularra erabaki honetatik aurrera.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 09:10 direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.